HIRIGINTZA I (3. maila)

2009-2010 ikasturteko 2. lauhilekoko 2. ariketa

EREMUAREN *IRUDIKAGARRITASUNAREN* AZTERKETA

Donostiako Altza auzoko **Auditz-Akular-Landarro** izeneko eremuaren eta haren inguruaren gaur egungo egoerak duen *irudikagarritasunaren* azterketa egingo da, taldeka. Horretarako, plano bakarra emango da, din A-1 tamainakoa (beharrezkoak diren geruza gardenak gehitu daitezke, informazioa garbi erakutsi aldera).

"Irudikagarritasuna" (ingelesez, *imageability*) edo "irakurgarritasuna" (*legibility*) Kevin Lynch hirigileak 1960an asmatutako terminoak dira, *The image of the city* liburu garrantzitsuan agertu zirenak. Haien bidez, hirien ikusezko kalitatea neurtu zitekeela azaldu zuen. Buruan ditugun hirien irudiak bost elementuk osatzen dutela zehaztu zuen:

1. **BIDEAK** (*Paths*): Hiriaren behatzaileak erabiltzen dituen edo erabil ditzakeen elementu linealak eta jarraituak dira, hau da, kaleak, bidezidorrak, errepideak, burdinbideak, ubideak, eta abar.
2. **ERTZAK** (*Edges*): Hiriaren behatzaileak erabiltzen ez dituen elementu linealak, edo hirian zehar aldaketa bat ezartzen duten mugak dira, hau da, hesiak, hormak, trantsizio-guneak, maila-aldaketak eta abar.
3. **BARRUTIAK** (*Districts*): Hiriaren zati ertainak eta bereizgarriak dira, hau da, izaera jakin bateko auzoak. Behatzailea horien "barnean" sentitzen da, ezaugarri bereziak dituztelako.
4. **NODOAK** (*Nodes*): Hiriaren gune bereziak eta estrategikoak dira, bertan hiriaren behatzaileen pilaketak ematen direlarik, hau da, bidegurutzeak, geltokiak, plazak eta abar.
5. **MUGARRIAK** (*Landmarks*): Hiriaren kanpo-erreferentzia puntuak edo jarraitutasunaren apurketa-guneak dira. Nodoetan ez bezala, behatzailea mugarriaren kanpoan dago eta hura hirian kokatzeko eta orientatzeko gidari gisa erabiltzen du.

Bost elementuok gainjarri daitezke. Argi dagoenez, hiriko zenbait elementu ezin dira aipaturiko bost atal hauetako bakar batean sailkatu. Adibidez, Donostiako Bulebarra bidea litzateke Gros auzunetik kaiara doan behatzaile batentzat; alde zaharretik zabalgunera doan batentzat, aldiz, ertza bat litzateke, bi barruti arras ezberdinen arteko muga ezartzen duelako; eta areago, nodotzat ere uler daiteke, bertan ospakizunak, manifestazioak eta bestelako jende-pilaketak eta bilkurak gertatzen direlako.

Talde bakoitzak Auditz-Akular-Landarro eta inguruneko irakurgarritasunaren azterketa egingo du, Kevin Lynchek proposatutako 5 elementuen arabera.

Azterketaren eskala 1/4.000-koa izango da, planoa Auditz-Akular-Landarro eremuan gutxi gorabehera zentratuz. Paperean (din A-1 formatuan, tolestu gabe; ordenagailuz egiten bada, A-3 formatuan inprimitu daiteke, baldin eta CD-an din A-1 formatuan badago) zein CD-an (.pdf edo .jpg formatuan) emango da, **martxoaren 9**an, 14:30ak baino lehenago.

Gasteizen, 2010eko otsailaren 22an.

Irakaslea: Unai Fdz. de Betoño